

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

#### **Alkatearen dekretua, 2019ko irailaren 13koa, Santa Maria Katedrala Fundazioaren Patronatuko lehendakariordetza eskuordetzeari buruzkoa**

2019ko maiatzaren 26ko tokiko hauteskundeen ondorio den Udalbatza eratu delarik, erakundeak parte hartzen duen kide anitzeko organoetan hura ordezkatzeko duten pertsona fisikoen izendapena berraztertu beharra dago.

Santa Maria Katedrala Fundazioaren Estatutuen 11. artikulua xedatzen duenez, Arabako diputatu nagusia izango da Patronatuko lehendakaria, edo hark izendatzen duena, eta Gasteizko alkatea izango da lehendakariordea, edo hark izendatzen duena.

Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 124. artikuluan xedatzen duenez, bestalde, alkateak bere funtzioetako batzuk zinegotzien esku utzi ditzake, dekretu bidez. Beraz, hau

Xedatu dut

Estibaliz Canto Llorente zinegotziari eskuordetzea Santa Maria Katedrala Fundazioaren Patronatuko lehendakariordetza.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko irailaren 13an

*Alkatea*

*GORKA URTARAN AGIRRE*